



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko uztailaren 20a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako kideak izendatzea, Nafarroako Parlamentuak proposatutakoak (13. or.).

—Ehizaren eta arrantzaren arloko legedia aztertu eta analizatzeko Ponentziaren txostena. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (13. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adieraztekoa.

AURKIBIDEA

HITZAURREA

ATARIKO TITULUA. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea eta helburua.
2. artikulua. Aplikazio-eremua.
3. artikulua. Jarduteko printzipioak.

LEHEN TITULUA. Pertsona bat biktima dela adieraztea.

4. artikulua. Pertsona bat biktima dela eta errekonozimendu publikorako eskubidea duela adieraztea.

5. artikulua. Foru lege honen xede direnen betebeharrak.

6. artikulua. Baldintzak ez betetzea.

BIGARREN TITULUA. Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordea.

7. artikulua. Sorrera.

8. artikulua. Osaera.

9. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.

10. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

11. artikulua. Jardueren oroitidazkia.

12. artikulua. Errekonozimendurako Batzordearen jarduteko printzipioak.

HIRUGARREN TITULUA. Pertsona bat biktima dela adierazteko prozedura.

13. artikulua. Prozedura hastea.

14. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

15. artikulua. Eskaerak ebaztea.

LAUGARREN TITULUA. Biktimei laguntzea eta sustapen-neurriak.

16. artikulua. Informazio-bulegoak.

17. artikulua. Justizia errestituatiboa.

18. artikulua. Laguntza-neurriak.

19. artikulua. Hedapena bultzatzea.

20. artikulua. Biktimen eta beren ordezkari-taldearen egitekoaren errekonozimendua.

Lehen xedapen gehigarria. Errekonozimendurako Batzordea eratzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak babestea.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduz garapena.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea

HITZAURREA

I

Nafarroako gizarteak lehen ere lege-errekonozimendu baten bidez adierazia du bakean eta demokrazian bizitzeko ezinbestekoak direla giza eskubideen urratze larriak jasan dituzten biktimen duintasuna aldarrikatzea eta erreparazio integrala eskaintzea, baldin eta arrazoi historikoak edo sozialak direla-eta egiarako, memoriarako eta justiziarako eskubideak bermatu ez bazaizkie. Estatuak ezin dio itzuri egin erreparazio horri, eta horri erantzuteko onetsi zen 33/2013 Foru Legea (16/2018 Foru Legeak aldatu duena), abiaburutzat 24/2003 Foru Legea eduki zuena. Ildo beretik doa 29/2018 Foru Legea, Nafarroako memoria historikoaren tokiei buruzkoa. Azkena martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea izan da, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Errekonozimendu falta bera pairatu dute sexu-abusu batzuen biktimek ere, hain zuzen ere abusuak ingurune hetsietan gertatu eta horregatik behar zenean sistema penalak erantzunik eman ez zien biktimek. Jokabide horien aurrean isilik gelditzea eta egileen inpunitea are larriagoak dira gizartearentzat abusuak familian, kirolean, erlijio-giroan edo hezkuntza-arloan gertatzen direnean, ingurune horiek guztiak oso garrantzitsuak baitira pertsonen sozializatorako; gainera, adingabeak zaurgarriagoak izaten dira esparru horietan, beren baloreak eratzen aritzen baitira, eta biktimizazioa eragiten duen gertaerak ondorio larriak edukitzen ditu.

Esparru horietako batean, erlijioarenean, Nafarroan urrats batzuk egin dira biktimen memoria sustatzeko, haien oinazea onartzeko, eta erreparazioa emateko. Dena dela, hastapenetan gara oraindik. 2019ko urrian, Nafarroako Sexu-abusuen Biktimen Elkarteko bost biktima Parlamentuan izan ziren, eta han, ateak itxita, beren lekukotzak eman zituzten. Hilabete geroago, biktimek berek lekukotzak plazaratzeko eskatu ondoren (egia, justizia eta egindako kaltearen erreparazioa aldarrikatu nahi baitzituzten), Nafarroako Parlamentuak jendaurrean hedatu zuten haiek adierazitakoa.

Azkenik, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren txostena aurkeztu zuen (2022ko otsailean plazaratutakoa). Bertan 52 biktima agertzen ziren eta 31 ustezko biktimagile, eta agerian jartzen zen arazoa bazegoela, larria zela, eta erakundeek esku hartu behar zutela, hots, berariaz eraturako

batzorde independente baten bidez biktima horien errekonozimendurako eskubidea arautuko zuen foru legea onetsi behar zela.

II.

Administrazio publikoek giza eskubideen urratze masiboen aurrean esku hartu beharra nazioartean hitzartutako eta ohiturazko arauen ondoriozkoa da, eta erraz sartzen da nazioarteko zuzenbide publikoaren doktrina orokorrean, nazioarteko zenbait erakunde eta tresnaren jardunean eta garapenean, eta giza eskubideen inguruko itunen aplikazioa gainbegiratzen duten organo juridikzional edo kuasijurisdikzionalen jurisprudentzian.

Giza eskubideak urratu zaizkien biktimei erreparazioa eman beharra dute Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna eta Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Anker, Gizagabe edo Apalesgarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmena sinatu dituzten estatuak. Erga omnes behartzen dituzten nazioarteko ordena publikoko arauak (ius cogens) baitira.

Ez da ahantzi behar ezen, Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua dela bide, oinarriko eskubideen gorputz juridikoa beti interpretatu behar dela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiako giza eskubideen inguruan berretsitako nazioarteko itunen eta akordioen arabera. Beraz, botere publikoek inolako ezbairik ez luzamendurik gabe babestu behar dituzte oinarriko eskubide hauek, eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrinaren esparruan bermatu behar dira, batez ere pertsonen bizitza eta osotasuna babesteko jurisprudentziaren esparruan.

Horrenbestez, giza eskubideen urratze larriak jasaten dituzten biktimen arretarako nazioarteko estandarrak bat datoz Europakoekin, batez ere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentarauarekin; Espainian, zuzentarau hori Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez garatu da.

Foru lege honen aplikazio-eremuaren barruan, xede nagusia (bakarra ez baina) sexu-indarkeria da, pertsonen osotasun fisikoari, moralari eta psikologikoari kalte egiten diena. Osasunaren Mundu Erakundearen 2002ko definizioaren arabera, honako hauek guztiak sexu-indarkeriak dira: pertsona baten adostasunik gabe egiten diren sexu-egintza guztiak eta sexu-egintzak egiteko ahalegin guztiak, nahi ez duenari sexuaz egiten zaizkion ohar eta intsinuazioak, eta pertsona baten sexuali-

tatea merkaturatzeko edo erabiltzeko egiten diren hertsapen-ekintzak, biktimekiko erlazioa gorabehera, eremu guztietan, etxea eta lantokia barne. Haurrak Sexu-esplotaziotik eta Sexu-abusuetatik Babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Lanzaroteko Hitzarmena esaten zaionak) honela arautzen du zer den sexu-abusua 18. artikuluan:

a) Sexu-jarduerak egitea nazioarteko zuzenbideko xedapen aplikagarrien arabera horretarako legezko adinera heldu ez den haur batekin;

b) Haur batekin sexu-jarduerak egitea hertsapenaz, indarrak edo mehatxuez baliatuz, edo haurraren onustez edo haren gaineko aginteaz edo eraginaz baliatuz, are familia barruan ere, edo haurraren zaurgarritasun bereziaz baliatuz, batez ere desgaitasun psikikoaz edo adimen-desgaitasunaz edo mendekotasunaz.

Halaber, kontuan eduki behar da Estatuan oraintsu aldarrikatu dela Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa. Lege horren helburua da haurren eta nerabeen osotasun fisikorako, psikorako, psikologikorako eta moralerako oinarritzeko eskubideak bermatzea indarkeria mota guztien aurrean, beren nortasuna askatasunarekin garatzeko aukera eduki dezaten, eta haiek bizitzako esparru guztietan babesteko neurri integralak ezartzea, honako hauek kontuan hartuz: arazoaz ohartzea, prebentzioa, arin antzematea, babestea eta kalteak konpontzea. Foru lege honen xedean sexu-indarkeria lantzen da. Horrela behin betiko sendotzen da administrazio publikoek indarkeria hori saihesteko hartutako konpromisoa.

III

Beraz, foru lege honen bidez estatutu berezia eman nahi zaie biktima horiei guztiei, giza eskubideak urratu dizkietelako Eliza Katolikoak halako urratzerik ez gertatzea bermatu behar zuen tokietan, urratzeak ez baitira onartu eta biktimei ez baitzaie erreparaziorik eman indarreko legeriaren arabera.

Honelako delituen ezaugarri berezietako bat da abusuak intimitatean gertatzen direla eta, horregatik, oso zaila dela detektatzea. Gauza jakina da elizgizonak egindako sexu-abusuetako gutxi salatzen direla. Hori egiaztatuta geratu da beste herrialde batzuetan: kasurik larrienen ere, luze jo du gertaerak jendaurrean agertu arte. Kasu askotan biktimek ez dute salaketarik jartzen, beldur izaten baitira gaitzetsiko ote dituzten. Gainera, tabuak, lotsak eta biktimagileekiko induljentiak ere arazoa luzarazi dute, inolako zalantzarik gabe.

Halaber, biktimagileak direla-eta, apaizek, kongregaziokideek eta ordena erlijiosoetako kideek, eta Elizaren titulartasuneko entitateetan edo hark kudeatzen dituen entitateetan lan egiten duten laikoek egindako biktimizazio guztiak hartzen dira kontuan.

IV

Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko foru lege honen egitura honelako da: atariko titulua eta lau titulu.

Atariko tituluan xedapen orokorrak biltzen dira. Foru legearen xedea eta helburua direla-eta, Eliza Katolikoaren barnean, beraren itzalpean edo berak egindako jardueretan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasan dutenak biktimatzat jotzeko eskubidea arautzen da, egin zaien kaltea aitortzeko, bakoitzaren eta taldearen errekonozimendua sustatzeko, eta giza eskubideei eta elkarbizitza demokratikoari zor zaien errespetua hedatzeko. Aplikazio-eremua Nafarroako Foru Komunitatea da, Justizia Administrazioaren jarduteko mekanismoen bidez ez errekonozimendurik ez erreparaziorik lortu ez duten biktimatzat. Eremu subjektiboan eskubideak urratu dizkietela adierazten duten pertsonak daude. Nolanahi ere, norbait hilez gero, ezkontideak eta hurkoak ere legitimatuta egonen dira. Titulu honen amaieran jarduteko printzipioak ezartzen dira, eta horietan aipatu beharrekoa da beharrezkoa dela Administrazioak zorrotasun handienarekin dokumentatzea zer gertatu den, biktimen errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzeko, abiaburutzat hartuta haien alde egitea, zeren eta, azken finean, berak baitaude legegintzaren ardatzean. Horrez gainera, honako printzipio hauek ere ezartzen dira: azkartasuna, erakundeen arteko lankidetzeta (beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun ahal izateko), hirugarrenen eskubideak bermatzea, eta subsidiarotasuna ekintza penalaren aurrean.

Lehen tituluan biktimatzat jotzeko eskubidea arautzen da, eta ezartzen da biktimek intimitaterako eskubidea dutela berek nahi dutenean. 5. eta 6. artikuluetan arautzen dira foru legearen onura jasoko duten pertsonen betebeharrak eta horiek ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.

Bigarren tituluan Errekonozimendurako Batzordea jorratzen da: sorkuntza eta osaera arautzen dira. Osaeran aipatu behar da teknikari adituez gainera biktimak eta Eliza Katolikoa ere egon daitezkeela; izan ere, Eliza Katolikoak hitza eta botoa edukiko ditu, ahalik gehien lagundu dezan giara iristeko bidean. Batzordearen indarraldia

sei urtekoa izanen da. Egoera jakin batzuetan, arrazoiak azalduta, beste horrenbeste luzatu ahal izanen da. Batzordearen idazkaria Biktimei Laguntzeko Bulegoko atalburua izanen da. Honek batzordearen jardunaren oinarrian dagoen administrazio-organoaren eta batzordearen beraren arteko koordinaziorako lanak eginen ditu. Batzordeko burua batzordekideen artean hautatuko da, eta hauek modu pluralean hautatuko dira. Batzordekideek adituen laguntza eduki ahal izanen dute beharrezkotzat jotzen denean.

Batzordearen egitekoak honako hauek izanen dira: behar den kasuetan pertsona biktima dela adieraztea, batetik, eta urteko jardueren oroitidazkia egitea, bestetik, herritarrek gertatutakoaren berri eduki dezaten. Oroitidazkiak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira, eta Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren Atarian plazaratuko ditu. Horrez gainera, batzordearen barneko jarduna arautzen da: deialdiak, aldizkako bilerak, eta erabakiak hartzeko modua. Foru legean arautzen ez den guztirako osagarri gisa ezartzen da Araubide Juridikoaren Legean kide anitzeko organoek arautzen dena aplikatuko dela, interpretazio hutsuneak ekidite aldera. Jarduteko printzipioak direla-eta, berriz ere erakundeen arteko lankidetzaz aipatzen da, bai eta hirugarren pertsonen eskubideen bermea, eta subsidiarotasuna prozedura penalaren aurrean, epaileen eta auzitegien zigor-arloko jurisdikzio eskusiboa errespetatzeko.

Horrela, memoriarako eskubidea arautzen da; horren bidez Eliza Katolikoaren barnean gertatu diren sexu-abusuak balidatzen eta gizarteratzen dira, eta esanahi berria ematen zaie. Horrenbestez, politikaren, erakundeen eta gizartearen aldeetatik dauzkagun erantzukizunak onartzen ditugu, eta errekonozimenduaren bidez aurre egiten diegu ahanzturaren apologiari, gizartearen amnesiari, distantziakidetasune, estaltzei eta gertaera horiek justifikatu eta ukatu dituzten “errebisionismo” eta “negazionismo” mota guztiei, eta indiferentziaren eta errelatibismo-erakustaldien kontra egiten dugu, abusuak pairatu dituztenak berriz ere biktimizazioa jasan ez dezaten. Asmoa da herritarren oroimen kolektiboan gordetzea Eliza Katolikoaren kideek adingabeen aurka egindako sexu-abusuen oroitzapena, jakinik oraintsura arte gertaera horiek ezkutuan eduki direla eta herritar gehienek ez zutela haien berri.

Izan ere, biktimagileek gertatutakoaren inguruko beren bertsioa finkatu nahi izan dute historian, oroimen kolektiboan eta egunerokotasunean itsatsita gelditu dadin bortxazko ahanzturaren eraginez. Orain erakundeak buru-belarri ari dira asmo horren kontra.

Horren aurrean, foru lege honek egitarako, justiziarako, memoriarako eta erreparaziorako esku-bideak aitortzen dizkie Eliza Katolikoaren esparruan egindako sexu-abusuen biktimei, alde batera utzita urratze horien egilea identifikatu, atxilotu, epaitu edo kondenatu duten ala ez, eta gertaeren gaineko erruduntasun erlazio zehatza ezarri beharrik izan gabe. Era horretan, foru legean dute oihartzuna, berriz ere, hala biktimen kolektiboan aldarrikapenek nola nazioarteko hainbat erakunderen eta adituen gomendioek.

Biktimen kolektibo horri babesa emanen zaio aintzat harturik preskripzioaren datua; izan ere, estaldura eman zaie preskribaturik egoteagatik zor zitzaizkien errekonozimendua eta erreparazioa jaso ez dituzten kasuei, oraindik ere auzitegiatara eraman daitezkeen auzietan esku sartzeari saihestuz.

Hirugarren tituluan arautzen da nola eskatu behar duten abusuak jasan dituzten herritarrek biktimatzat jotzeko. Azken batean, izapideak has-teko mekanismo arin bat bermatzen da, gehiegizko betekizun burokratikorik gabekoa, eta norbaiti biktima izatea aitortzeko egin beharreko ikerketa azkar eta eraginkorra eragotzi edo oztopatu dezaketzen hesiak eta zailtasunak ezabatzen dira, jarduketak ez baitira zigorra edo zehapena ezartzekoak.

Errekonozimendurako Batzordearen jardueren euskarri administratiboa Biktimen Arretarako Bulegoaren barnean antolatzea aukeratu da; batzorde horrek agintzen ahalko du ikerketarako eta espedientearen instrukziorako jarduerak egin daitezela, eskatzaileak ekarritako informazioa egiaztatzeko, aurrekari, datu edo txostenak eskatzeko, lekukotasunak eskatzeko edo, laburbilduz, gertaerak hobeki argitzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egiteko. Batzordeak erabakitzen ahalko du eskaerak ez onartzea edo, arrazoiak azalduta, norbait biktima dela deklaratzeko proposatzea edo deklarazio hori ukatzea. Justiziaren arloan esku-menak dituen departamentuko titularraren ebazpen baten bidez egiten da deklarazioa, eta gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahalko da Nafarroako Gobernuaren aurrean, administrazio bideari amaiera emanez. Isiltasuna ezezkoa izanen da. Hala ere, prozedura osoan aginduzko epeak izanen dira eta modu arrazoituan baino ezin izanen dira luzatu. Administrazioak ezin izanen du inola ere saihestu ebazteko betebeharra.

Laugarren tituluan arautzen da nola emanen zaien laguntza biktimei eta nolako sustapen-neurriak ezarriko diren. Biktimei informazioa emateko ardura Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoari esleitzen zaio. Horretan bere arautegiarekin bat

etorri jardun beharko du. Biktimek eskatuta, Justizia Departamentuak foru legearen helburuak eta xedeak lortzeko egokitzat jotzen diren justizia errestituzioaren mekanismoak ezartzen ahalko ditu. Horren oinarriak honako hauek dira: oroimenerako eskubidea eta Estatuak eta gizarteak oroitutako beharra.

Justizia errestituzioaren mekanismoak biktimei eskubideei buruzko 2012/29/EB Zuzentarauan arautzen dira. Horien bidez biktimek onura agerikoak jasotzen ahal dituzte: begirunezko tratamendua, banakakoa eta profesionala; informazio erabilgarria errestituzioaren eta jasandako kalteetatik suspertzeko, eta behar denean prozedura judizialari aurre egiteko; hobeki erabakitzeko informazioa; beren segurtasuna eta duintasuna babesten dira, bai eta beren ahaideenak ere; berriz biktimitzatzeko, beldurrarazteko edo errestituzioa jasotzeko arriskua murrizten da; konfiantza handiagoa dute erakundeetan. Horrela beste era bateko justizia sustatzen da: zigorra ezarri baizik egiten ez duen justiziatik justizia errestituzioa pasatuko gara. Biktimei sistemaren erdigunean jartzen dituen justizia. Nazioarteko zuzenbidean, justiziaren kontzeptu honen oinarriak Erromako Estatuak dago, besteak beste. Horren arabera biktimei errestituzioa eman behar zaie, eta horren barnean honako hauek sartzen dira: errestituzioa, kalte-ordaina eta errehabilitazioa.

Beraz, justiziarako eskubidea (modu poliedrikoan ulertuta) bermatzeko asmoarekin, eta inpunitatearen kontra egiteko, lege honen bidez Komunitateak biktimei esku jartzen ditu orain arte jasan dituzten egiturazko injustiziaz arintzeko behar diren baliabideak eta prestazioak, kasuen arabera.

Hara zer dioten Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak "Inpunitatearen aurka borrokatuz giza eskubideak babesteko eta sustatzeko printzipio multzo eguneratua" dokumentuan (1. printzipioa): "Inpunitatea da estatuak dituzten honako betebeharrak hauek urratzea: bortxaketak ikertu beharra; egileei dagokienez neurri egokiak ezarri beharra, batez ere justiziaren arloan, erantzukizun penalaren susmopean dauden pertsonak auziperatzeko, epaitzeko eta zigor egokiak jartzeko; biktimei baliabide eraginkorrak eta jasandako kalteen ordaina eman beharra; egia jakiteko eskubide ukalezina bermatu beharra, eta bortxaketak berriz ez gertatzeko behar diren neurriak ezarri beharra".

Titulu honek ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari biktimei laguntzeko neurriak ezartzeko eta gertaerak modu zientifikoan ikertzea eta haien berri zabaltzea sustatzeko.

Tituluaren amaieran azaltzen da biktimek eta haien ordezkariak zeregin garrantzitsua dutela, eta ezartzen da haiekin nahitaez hitz egin behar dela eragiten dieten xedapen guztiei buruz horretarako berariaz erabakitako parte hartzeko mekanismo egokiak bitartez.

Lehenbiziko xedapen gehigarrian ezartzen da Errestituzioaren Batzordea eratuko dela kideak izendatzen direnetik hilabete iragan baino lehen.

Bigarren xedapen gehigarrian datu pertsonalen babesa arautzen da, eta biktimei babesteko neurri batzuk ezartzen dira, ukitutako pertsonen intimitaterako eskubidea zaindu nahian. Hain zuzen ere, aukeran dauden segurtasun-neurri zorrotzenak ezartzen dira biktimei askatasuna, intimitatea eta duintasuna sustatzeko.

Amaitzeko, azken xedapenetako lehenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko. Azken xedapenetako bigarrenak arautzen du foru legea Nafarroako Foru Komunitateko Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta helburua.

1. Foru lege honen helburua da egituratzea Eliza Katolikoaren barnean, beraren itzalpean edo berak egindako jardueretan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontra edozein modutan ere erasoren bat jasan duten pertsonak biktimitzat jotzeko eskubidea. Horrez gainera, arautzen da nola argitu behar diren gertaerak, eta nolako ondorioak izan diren dituzten.

2. Zehatzago, honako hauek dira foru lege honen xedeak:

a) Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkieten biktimek pairatu duten kaltea onartzea eta pertsona horiei errestituzioa ematea.

b) Biktimei errestituzioa ematea eta arreta bultzatzea, banaka zein taldean. Bereziki, oroimen kolektibo, demokratiko eta kritikoa eratzeko, biktimei ahotza biltzen duena eta elkarriketa sustatzen duena.

c) Giza eskubideekiko errespetua hedatzen laguntzea, elkarbizitza demokratikora beharrezkoak diren zutabe sendoak eraikitzeko.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honetan arautzen da nola emanen zaizkien errekonozimendua eta laguntza Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkieten biktimei, hain zuzen ere Justizia Administrazioaren jarduteko mekanismoen bitartez halakorik jaso ez dutenei.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak bere jardunean epaitegi eta auzitegi eskudunen zigor-arloko jurisdikzio eskusiboa errespetatuko du beti.

2. Foru lege honen eremu subjektiboan honako hauek daude: Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontrako erasoren bat jasanik giza eskubideak urratu dizkietela adierazten duten pertsonak, hain zuzen ere inongo entitate publikok biktimatzat jo ez dituenak.

Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan abusuak jasan dituen pertsona bat hilez gero, honako hauek eskatzen ahalko dute hura biktima dela adierazteko:

a) Zendutakoaren ezkontideak, legalki bananduta egon ez badira, bikotekide iraunkorrak edo heriotza-unearen aurreko bi urteetan harekin ezkontzaren antzeko afektibitate-harremanez elkarturik modu iraunkorrean bizi izandako pertsonak (haurrik izan badute, aski izanen da elkarbizitza soila), eta seme-alabek.

b) Hildakoaren aitak eta amak, bilobek, senideek eta aitona-amonek.

Foru lege honetan arautzen diren eskubide-urratzeak pairatu dituen pertsona bat hiltzen bada biktima-errekonozimendurako prozedura hasi ondoren, aurreko paragrafoan azaltzen diren pertsonak aurrera egin ahal izanen dute prozedurarekin. Bestela, prozedura amaituko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean administrazio-prozedura gerora sortutako arrazoiengatik amaitzeaz ezartzen denarekin bat etorritz.

3. Lurralde-eremuaz denaz bezainbatean, foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean Eliza Katolikoaren barnean gertatu diren sexu-abusuen biktimei aplikatuko zaie.

3. artikulua. Jarduteko printzipioak.

1. Biktimekiko elkartasuna printzipioan oinarrituta, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak neurri egokiak ezarriko ditu helburu hauek lortzeko:

a) Foru lege honen esparruaren barnean, aurkezten diren kasuetan gertatutako giza eskubideen urratzeak ahalik eta zorrotasun, egiazkotasun eta koherentzia handienarekin dokumentatzea, kontuan hartuz kasu bakoitza berezia dela eta gertaeren artean desberdintasun handiak daudela.

b) Foru lege honetan arautzen diren giza eskubideen urratzeen biktimen errekonozimendu instituzionala eta soziala sustatzea, ezagunak izan daitezen eta erreparazio morala emateko.

2. Prozeduren instrukzioan eta ebazpenean honako printzipio hauek aplikatuko dira:

a) Biktimekiko tratu bereziaren printzipioa. Kontuan hartuko da haiek zaurgarritasun eta desparekotasun berezian egon daitekeela, eta behar dena eginen da prozedurak ez dezan sor prozesu traumatiko gehiagorik.

b) Azkartasunaren printzipioa, eskubideen aitortpena eta erreparazioa beharrik gabe luzatzen edo zailtzen dituzten izapide formalak saihestuz.

c) Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa, erakunde publikoek eskatzen zaizkien datu guttiak eman ditzaten garaiz eta behar bezala, eta espedienteak ebazten lagundu dezaten.

d) Hirugarrenen eskubideen bermearen printzipioa. Honen arabera espedienteetan agertzen diren hirugarren pertsonen ohorerako eskubidea, irudirako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea babestu behar dira. Espediente batean agertzeak ezin ditu inolaz ere eragotzi ez urratu pertsona horien berme juridikoak eta konstituzionalak.

e) Prozedura administratiboa prozedura penalaren subsidiarioa delako printzipioa. Foru lege honetan ezartzen den prozedura administratiboak ez du zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen ditu abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak.

LEHEN TITULUA**Pertsona bat biktima dela adieraztea**

4. artikulua. Pertsona bat biktima dela eta errekonozimendu publikorako eskubidea duela adieraztea.

Foru lege honen ondorioetarako, adierazten bada pertsona bat Eliza Katolikoaren barnean edo berak egindako jardueretan Nafarroan osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren edo sexu-askatasunaren kontra edozein modutan erasoren bat jasan duela eta horren biktima dela, pertsona horrek

eskubidea edukiko du biktima-errekonozimendu publikorako.

Errekonozimendu publiko horrek bateragarria izan beharko du biktimak bere intimitatea gordezko daukan eskubidearekin, berariaz eskatuz gero. Beraz, biktimak eskatu ahal izanen du errekonozimenduaren berri ez zabaltzeko eta inori ez jakinarazteko.

5. artikulua. Foru lege honen xede diren betebeharrak.

Giza eskubideen urratzeen biktimaren errekonozimendua eduki nahi duten pertsonak honako hauek egin beharko dituzte:

a) Onartu beharko dute foru lege honen II. tituluaren arautzen den Errekonozimendurako Batzordeak noiznahi egiaztatzea aurkeztutako datuak eta dokumentuak, eta biktimaren errekonozimendua ebatzeko eskatzen duen informazio guztia eman beharko diote.

b) Arautegian onuraduna izateko ezartzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bai eta ezartzen diren betebeharrak ere.

c) Gertaerak argitzeko behar diren egiaztapeak eta kontrolak onartu beharko dituzte.

6. artikulua. Baldintzak ez betetzea.

Foru lege honetan ezartzen dena ez betetzeak edo datu faltsuak aurkezteak biktimaren errekonozimendua galtzea ekarriko du. Ebazpena errekonozimendurako eskumena daukan organoak emango du, bidezko espedientea egin eta interesdunei entzun ondoren, sei hilabete iragan baino lehen.

BIGARREN TITULUA

Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako eraso biktimen errekonozimendurako batzordea

7. artikulua. Sorrera.

1. Errekonozimendurako Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo independente gisa. Honako eginkizun hauek izanen ditu: aurkeztutako eskaerak baloratzea eta, foru lege honen babesean, onar daitezen edo bazter daitezen proposatzea; eta, bidezkoa denean, pertsona bat Eliza Katolikoaren barnean, Nafarroan, sexu-abusuen biktima izan dela adieraztea. Batzordearen indarraldia 6 urtekoa izanen da. Nolanahi ere, beste horrenbeste luzatu ahal izanen da Nafarroako Gobernuaren justiziaren arloko eskumena daukan departamentuko titularraren foru agindu baten bitartez, horretara bultzatzen duten inguruabarrak gertatuz gero (arrazoitu behar dira).

2. Errekonozimendurako Batzordea Nafarroako Gobernuko justiziaren arloko eskumena daukan departamentuari atxikiko zaio organikoki, eta foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzean autonomiaz eta independentzia osoz jardunen du, eta emandako eginkizunak objektibotasunez, profesionaltasunez, inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez eta ordenamendu juridikoa errespetatuz bete beharko ditu.

3. Errekonozimendurako Batzordeak esleitzen zaizkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonal egokiak eduki beharko ditu. Nafarroako Gobernuak bermatuko ditu baliabide horiek.

8. artikulua. Osaera.

1. Errekonozimendurako Batzordean bederatzikide ariko dira. Sei urterako izendatuko dira, eta berriz hautatu ahal izanen dituzte Batzorderako. Hona:

a) Nafarroako Biktimei Laguntzeko Bulegoaren atalburua. Idazkaria izanen da.

b) Biktimen arloko esperientzia duten lau pertsona. Horien artean historian, zuzenbidean eta psikologian adituak egon behar dira nahitaez. Lau pertsona horietako bi Nafarroako Gobernuko Justizia Departamentuaren titularrak proposatuko ditu, eta beste biak Nafarroako Parlamentuak. Batzordean aritzeko izendatzen diren pertsonen ezin izanen zaie utzarazi kargua, beren betebeharrak modu larrian betetzen ez badituzte; halako ez betetzea gertatuz gero, ebazpen arrazoitu beharko da kargua utzarazteko, interesdunei entzun ondoren.

c) Nafarroako Eliza Katolikoak proposatutako bi pertsona.

d) Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan sexu-abusuen biktima izan diren pertsonen elkarrekin, indarreko legeriaren arabera eraturakoek, proposatutako bi pertsona.

2. Erabakitzen den kasuetan Errekonozimendurako Batzordeak lege honen xede diren osotasun fisikorako, ukigabetasunerako eta sexu-askatasunerako eskubideen urratzeak frogatzeko beharrezkotzat jotzen diren adituak eskatu ahal izanen ditu. Aditu horiek batzordeko buruaren zuzendaritzapean eginen dute balorazio, analisi eta azterketa lana.

3. Eraketa bilkuran hautatuko da Errekonozimendurako Batzordeko burua, batzordeko kideen artean, gehiengo soilez.

9. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.

1. Justiziaren arloko eskumena daukan Nafarroako Gobernuko departamentuaren titularrak emandako foru aginduaren bidez izendatuko dira aurreko artikuluan ezartzen den bezala hautatuko diren Errekonozimendurako Batzordeko kideak.

2. Izendatutako pertsonak izendatzea argitara ematen den egunetik ondoko hogeita hamar egun naturalen barruan hartuko dute beren karguen jabetza.

10. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Errekonozimendurako Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, bilkura eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzeari dagokionez, beharrezkoa izanen da haren kideen erdiak bertaratuta egotea, gutxienez ere. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

Errekonozimendurako Batzordeko kideek eskatu ahalko dute aktan jaso dadila hartutako erabaki baten aurka eman duten botoa, edo alde eman duten botoaren zentzua. Halaber, kideren bat gehiengoak hartutako erabakiarekin ados ez dagoenean, boto partikular bat aurkeztu ahalko du idatziz, erabakia hartu eta bi eguneko epean, eta hura testu onetsiari gehituko zaio.

2. Errekonozimendurako Batzordeari dagokio barneko funtzionamendu arauak onestea, eta horiek osatzen ahalko dira bat etorri sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko legeriak kide anitzeko organoei dagokienez ezartzen duenarekin.

Nolanahi ere, Errekonozimendurako Batzordeak hilean behin gutxienez egingen du ohiko bilkura.

Salbuespen gisa batzordeburuaren ekimenez biltzen ahalko da, edo kideen erdiek eskatuta, gutxienez ere. Berariazko deialdia egin beharko da bi egun baliiodun lehenago, gutxienez. Edonola ere, eraketa baliozkoa izan dadin, kideen erdiak bildu beharko dira, gutxienez, tartean batzordeburua eta idazkaria direla.

3. Bere eginkizunetan jardutean, Errekonozimendurako Batzordeak aintzat hartuko ditu genero-ikuspegia, LGTBI kolektiboa eta beste talde zaugarri batzuk.

11. artikulua. Jardueren urteko oroitidazkia eta amaierako oroitidazkia.

1. Errekonozimendurako Batzordeak urtero oroitidazki bat egingen du eta bertan jasoko ditu egin zaizkion eskaerak, egin dituen lanen emaitzak, espedienteen egoera eta eman dituen ebazpen-proposamenak. Urteko oroitidazkiak batzordearen agintaldiaren amaieran egingen den oroitidazkiari erantsiko zaizkio.

2. Urteko oroitidazkiak eta amaierako oroitidazkia Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko ditu justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko ditu, justiziaren arloan eskumena duen Parlamentuko batzordearen aurrean.

Halaber, justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak oroitidazki hori bidaliko die hala eskatzen duten erakunde publikoei, beren xedeak betetzeko erabil dezaten, administrazioen arteko lankidetzaren leialaren printzipioari jarraituz.

12. artikulua. Errekonozimendurako Batzordearen jarduteko printzipioak.

Batzordearen jardunbidean bereziki kontuan hartzeko printzipioak izanen dira honako hauek:

1. Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa, erakunde eta entitate publiko nahiz pribatuek eskatzen zaizkien datu guztiak eman ditzaten garaiz eta behar bezala, eta espedienteak ebazteko behar den laguntza eman dezaten bai agintariek bai haien zerbitzuan ari diren teknikariek.

2. Hirugarrenen eskubideak bermatzearen printzipioa. Foru lege honen babesean izapidetutako espediente administratiboek ez dute inolaz ere ekarriko hirugarrenen berme juridiko eta konstituzionalen aurkako urraketarik edo erasaterik.

3. Prozedura administratiboa prozedura penalaren subsidiarioa delako printzipioa. Foru lege honetan ezarritako prozedura administratiboak ez du zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen ditu abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak. Edonola ere, Errekonozimendurako Batzordeak uste badu espedientea irekitzetik ondorioztatu daitekeela zigortzeko moduko jarduketaren bat, organo judizialei jakinaraziko die eta horren berri emanen dio eskumena duen administrazioari, eta ez du prozeduran aurrera egingen hura behin betiko ebatzi arte.

HIRUGARREN TITULUA
Pertsona bat biktima dela
adierazteko prozedura

13. artikulua. Prozedura hastea.

1. Eliza Katolikoaren barnean edo hark egiten dituen jardueretan Nafarroan abusuak jasan dituzten pertsonak biktimatzat jotzeko prozedura horretarako eskaera aurkeztu denean hasiko da. Eskaera lege honen eremu subjektiboko pertsonak aurkeztu ahal izanen dute Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian arautzen den bezala.

2. Eskabidean egitateen deskribapen zehatza jaso behar da, eta, harekin batera, egokitzat jotzen diren dokumentu edo txosten guztiak aurkeztu ahalko dira; hala ere, hori ez da eragozpena izanen Batzordeak haiek dokumentatu eta egiaztatzeko egin ditzakeen jarduketa eta zuzenmenetarako.

14. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

1. Eskabidea eta erantsi beharreko agiriak jaso ondoren, espedienteak izapidetzeko eskumena duen organoak foru lege honen II. tituluaren arautzen den Errekonozimendurako Batzordeari igorriko dio espedienteak.

2. Errekonozimendurako Batzordeari dagokio, arrazoiak emanda, proposatzea eskaerak ez daitezkeen izapidetzeko onartu, haiek igorri eta hilabeteko gehieneko epean, bai eta onartutako eskaerak aztertzea eta, arrazoiak emanda, biktima-izaeraren deklarazioaren proposamena onartzea edo aurkeztutako eskaera ukatzea ere.

3. Behin eskabidea izapidetzeko onartuta, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko eta egokitzat jotzen duen guztietan, honako jarduketa hauetakoren bat egin ahalko du:

a) Eskatzaileari entzun, aurkeztu dituen dokumentu eta frogei buruzko informazioa osatzeko. Horretarako, eta biktimak aukeratutako entzute modua errespetatuz, elkarrizketa baterako hitzordua jarri ahalko dio eskatzaileari, eta batzordeko idazkariak horren akta egiten du egokitzat jotzen diren baliabide teknikoak erabiliz.

b) Espedienteak izapidetzeko beharrezko izan daitezkeen aurrekari, datu edo txostenak eskatu beste administrazio publiko, entitate edo organo pribatu zein publiko batzuei, betiere datu pertsonalen babesari buruzko legeria indardunean finkatutako mugen barruan.

c) Egitateen zuzeneko nahiz zeharkako ezagutzarengatik edo arloan duten esperientziarengatik

eskabideari buruz informazio garrantzitsua eman dezaketen pertsonen txostena edo lekukotasuna eskatu.

d) Egitateak modurik onenean argitzeko eta aurkeztutako eskabidea hobeki ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egin.

4. Errekonozimendurako Batzordeak jakiten duenean irekitako kausa judizialak badaudela, espedienteak ebaztearen ardura duen organoak eten egiten du prozeduraren izapidetzea bide judiziala agortu arte. Etete bera gertatuko da irekitako zehapen-prozedura administratiborik badagokela jakiten denean, harik eta haiek bide administratiboan irmoak izan arte.

15. artikulua. Eskaerak ebaztea.

1. Espedientean jasotako dokumentazioa eta gainerako frogabideak aztertu ondoren, aurkeztutako eskabide bakoitzari buruzko txosten arrazoitu bat egiten du Errekonozimendurako Batzordeak, eta bertan aztertuko du ea foru lege honen aplikazio-eremuan ezarritako baldintzak betetzen diren; laburpen bat egiten du biktimaren eskubideen urraketa eragin zuten egitatei buruz, oinarri gisa darabiltzan frogabideak zehaztuta; eta proposatuko du, kasua bada, foru lege honen ondorioei dagokienez biktima deklaratzeko.

2. Eskabidea jaso eta gehienez ere bederatzita hilabeteko epean egin behar da aipatutako txostena, salbu eta epe horren luzapen arrazoitua justifikatzen duten salbuespenezko inguruabarrak badaude eta ebazpen bidez luzatzen bada.

3. Egindako txostena Nafarroako Gobernuaren justiziaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari igorriko zaio, eta horrek, hiru hilabeteko gehieneko epean, kasuko ebazpena emanen du, eskabidea baietsi edo ezetsiko duena.

4. Ebazpena hilabeteko gehieneko epean jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, eta zer errekurtso jar daitezkeen adieraziko zaie.

5. Epe hori ebazpenik eman gabe igarotzen bada, interesdunek administrazio-isiltasunaren bidez eskaera ezetsitzat jotzen ahalko dute. Nolanahi ere, Administrazioak ebazteko betebeharra izanen du.

6. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, eta horren ebazpenak administrazio bidea amaituko du.

LAUGARREN TITULUA**Biktimei laguntzea eta sustapen-neurriak.****16. artikulua.** Informazio-bulegoak.

1. Biktimei foru lege honen arabera laguntzea Nafarroako Foru Komunitatearen mendekoak diren biktimei laguntzeko bulegoen ardura izanen da. Abenduaren 11ko 1109/2015 Errege Dekretuak (Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legea garatu, eta delituaren biktimei laguntzeko bulegoak arautzen dituenak) arautzen ditu bulego horiek.

2. Nafarroako Foru Komunitatean, biktimei laguntzeko bulegoek beren sorrerako araudi berriazkoan esleitu zaizkien eginkizunak izanen dituzte.

17. artikulua. Justizia errestituatiboa.

Biktimiek hala eskatuz gero, Nafarroako Foru Komunitateak, justiziaren arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, eskura dituen justizia errestituatiboko tresnak biktimei eskainiko dizkie, foru lege honen xedeak eta helburuak lortzeko.

18. artikulua. Laguntza-neurriak.

Nafarroako Gobernuak abusuen biktimak ordezkatzeko kolektiboak laguntzeko neurriak hartzen ahalko ditu: besteak beste, zuzeneko aholkularitza, dirulaguntzak eta erakunde publiko eta pribatuekiko bitartekotza.

Laguntzak ematea sustatuko du, halaber, irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakunde jardueraren garapenerako, baldin eta haien xede nagusia bada foru lege honen aplikazio eremuko biktimen interesak ordezkatu eta defendatzea, eta biktimen zaurgarritasun bereziko egoera pertsonal edo kolektiboak gainditzeko laguntzeko programak garatzen badituzte. Berezi, dirulaguntzak emanen dira arreta programetarako, oroimen eta sentsibilizazio sozialeko programetarako eta biktimei eta haien eskubideei buruzko ikerketa proiektuetarako.

19. artikulua. Hedapena bultzatzea.

Nafarroako Gobernuak foru lege honetan jasotzen diren giza eskubideen urratzei buruzko ezagutzaren eta ikerketaren hedapena sustatuko du. Horretarako, lankidetzaren hitzarmenak egiten ahalko ditu erakunde publiko eta pribatuekin, zabalkunderako argitalpenak eta materialak prestatzeko eta informazio jardunaldiak edo biltzarrak egiteko, foru lege honetan aitortutako eskubideen urratzeen berri zabaltzen lagunduko dutenak.

20. artikulua. Biktimen eta beren ordezkari-taldearen egitekoaren errekonozimendua.

Nafarroako Gobernuak biktimen eta beren ordezkari-taldearen solaskide eginkizuna aitortuko du, funtsezko lana egiten baitute kontzientziarioan eta foru lege honetan jasotzen diren giza eskubideen urratzeen biktimei nazioartean aitortu zaizkien egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideen defentsan. Beraz, kontsulta egin beharko zaie parte-hartze mekanismo egokien bitartez, foru lege hau garatu edo betetzeko eman eta haiei eragiten dieten xedapen guztietan.

Lehen xedapen gehigarria. Errekonozimendurako Batzordea eratzea.

Errekonozimendurako Batzordea nortzuek osatzen duten aditzera emateko ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunik hasita hilabeteko epean eratuko da batzorde hori.

Bigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak babestea.

1. Foru lege honetan arautzen diren datu pertsonalen tratamenduak honako hauetan xedatutakoari jarraituz egingen dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, pertsona fisikoen babesa arautzen duena datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarririk gabe uzten duena 95/46/EE Zuzentaraua; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

2. Tratamenduaren erantzuleak segurtasun neurri egokien aplikazioa bermatuko du, Administrazio elektronikoen esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua betez.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarririk gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako kideak izendatzea, Nafarroako Parlamentuak proposatutakoak.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko ekainaren 30ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak hautaturiko honako pertsona hauek proposatzea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M. izeneko sozietateko Administrazio Kontseiluko kide izateko:

– Ainhoa Unzu Garate andrea.

– Asier Baztan Beperet jauna.

– Koldo Amezketa Díaz jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ehizaren eta arrantzaren arloko legedia aztertu eta analizatzeko Ponentziaren txostena.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ehizaren eta arrantzaren arloko legedia aztertu eta analizatzeko Ponentziaren txostena, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

TXOSTENA

1.- Aurrekariak

1. 2020ko azaroaren 24an Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak erabaki zuen, Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioen proposamenari jarraituz, ponentzia bat sortzea ehizari eta arrantzari buruzko legeria aztertzeko.

2. Ponentzia 2021eko urtarrilaren 8an eratu zen, eta kide hauek izan ditu, Legebiltzarreko

talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak izendatuak:

Navarra Suma talde parlamentarioaren izenean Miguel Bujanda Cirauqui jauna, eta ordezkoa, Isabel Olave Ballarena andrea; Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren izenean Antonio Javier Lecumberri Urabayen jauna, eta ordezkoa, María Virginia Magdaleno Alegría andrea; Geroa Bai talde parlamentarioaren izenean Pablo Azcona Molinet jauna, eta ordezkoa, Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea; EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren izenean Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea, eta ordezkoa, Maiorga Ramírez Erro jauna; Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarioaren izenean Ainhoa Aznárez Igarza andreak, eta ordezkoa, Mikel Buil García jauna; eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren izenean María Luisa de Simón Caballero andrea.

Nekane Iriarte Amigot eta Ignacio Ordoki Guarch letratuak lagundu zieten.

Eratze-bilkuran Antonio Javier Lecumberri Urabayen jauna hautatu zuten ponentziako lehendakari, eta barne funtzionamendurako arauak onetsi zituzten.

3. Ponentzia ahalegindu da bere azterlanari ikuspegi desberdinetatik heltzen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko departamentu guztien lankidetzeta eta urgazpena eskatuz, bai eta ehiza eta arrantza gaietan zeresana duten erakunde autonomoena ere.

Halaber, ponentziak bilkuren egutegia adostu zuen, eta ahaleginak egin dira zeresana duten gizarte eragile guztiak bilkuretan izan daitezen: ehiztari eta arrantzaleen elkarte, federazio eta klubak, nekazaritzako sindikatuen ordezkariak, biologoen eta albaitarien elkargo ofizialak, ostalaritzako eta turismoko enpresaburuak. Gainera, dokumentazio oparo eta baliotsua bildu da eta ponentziaren administrazio-espeditentari gehitu zaio.

Antolaketari buruzko barne-bilerak ere egin ziren eta horietan, besteak beste, egutegiak onartu ziren, epeak luzatu ziren eta kolektibo gehiago gonbidatu ziren ponentziara biltzera.

Hamaika bilkura egin dira ehiza eta arrantza elkarrekin, federazioekin, lanbide elkargoekin, Administrazioaren hainbat arloekin eta udal ordezkariekin.

Ukitutako zenbait erakunderi eskatu zaie Nafarroako ehizaren eta arrantzaren egungo araubideari buruz txostena egiteko eta beren ekarpen eta proposamenak azaltzeko:

– Nafarroako Mendi Federazioari.

– Iruñeko Abokatuen Elkargoari eta Aseguru Bitartekarien Elkargoari, ehiza eta arrantza barrutietako ondare-erantzukizunaren arloko jurisprudentzia-lerroari buruz, zehazki.

– Nafarroako Gobernuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiko Errepideak Zaintzeko Zerbitzuari, animaliek bide sarean eragiten dituzten kalteei buruz.

– Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (NIK) enpresa publikoko ehiza eta arrantza arloei.

– Asociación de estudio y mejora de los Salmonidos (AEMS-Ríos con vida), Ekologistak Martxan, Erriberako Ekologistak Martxan eta Greenpeace elkartei.

Ponentzian agerraldia egin dute honako aditu eta arloko eragile hauek –eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzeagatik eta emandako laguntzarengatik–:

– Otsailaren 5ean: Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren izenean agertu ziren Ingurumeneko zuzendari nagusia, Pablo Muñoz Trigo jauna, eta Basoen eta Ehizaren Zerbitzuko zuzendaria, José Fermín Olave Velasco jauna.

– Otsailaren 19an: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren izenean agertu ziren haren lehendakaria, Juan Carlos Castillo Ezpeleta jauna, eta idazkari nagusia, Berta Enrique Cornago andrea.

– Martxoaren 5ean: Foruzaingoaren izenean agertu ziren Pablo Cosín Baztán jauna, Ingurumena Babesteko Brigadako inspektore-burua, eta José Luis Calvillo Álava jauna, Tuterako Foruzain Etxeko Trafiko Brigadako inspektore-burua.

Guardia Zibilaren izenean agertu ziren Seprenaren Ataleko teniente-burua, Fernando Ramón Carrillo Oliver jauna, trafiko sektoreko bigarren kapitain-burua, Samuel Santana Álamo jauna, eta Guardia Zibileko Armen Zerbitzuko Francisco Colmenero Guerra tenientea.

– Martxoaren 17an: Nafarroako Ehiza Federazioaren izenean agertu ziren José Angel Remírez Arana jauna (lehendakaria), Aitor Merino Benito jauna (baso ingeniaria), Albert Ituren Oliver jauna, Nicolás Urbani Barrios jauna (albaitaria), Christian Gortazan jauna eta Nere Lertxundi Lizaso andrea.

– Apirilaren 16an: Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) sindikatuaren izenean agertu ziren Fermín Gorraiz Etxamendi jauna eta Felipe Etxetxikia Juanbeltz jauna.

Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra (UAGN) sindikatuaren izenean agertu ziren David Navarro Lorente jauna eta Luis Miguel Serrano jauna.

– Apirilaren 30ean: Nafarroako Ehiztarien Elkartearen (ADECANA) izenean agertu ziren haren lehendakaria, Carlos Irujo Beruete jauna; Florencio Markina Lamonja jauna, Biologia Zientzietako doktorea; eta Miguel Íñigo Noáin jauna, ADECANAKo kidea eta lehendakari ohia.

Larraga Ehiztari Elkartearen izenean agertu zen José Ramón Vela Fernández jauna.

Ribaforadako Ehiztarien Elkartearen izenean agertu zen José Angel Pérez Calavia jauna.

– Maiatzaren 14an: Lizarrako Ehiza eta Arrantza Elkartearen izenean agertu zen Leonardo Armañanzas jauna.

Tuterako arrantzaleen Las Labradas kirol klubaren izenean agertu zen Rafael Jiménez Calvillo jauna.

Baztango Ehizari eta Arrantzaleen Kirol Elkartearen (arrantza atala) izenean agertu ziren Martín Apezetxea Berho jauna eta Oier Iantzi Ordoki jauna.

Nazas del Bidasoa arrantzale elkartearen izenean agertu zen José Luis Celihueta Latorre jauna.

Río Arga kirol arrantzako klubaren izenean agertu zen Francisco Javier Rodríguez Rupérez jauna.

Nafarroako Arrantza Federazioaren izenean agertu zen haren lehendakaria, José Antonio González Sarmiento jauna.

– Maiatzaren 28an: Asociación de estudio y mejora de los Salmónidos (AEMS-Ríos con vida) elkartearen izenean agertu zen haren lehendakaria, Jorge Teniente Vallinas jauna.

– Ekainaren 4an: Nafarroako Albaitarien Elkargo Ofizialaren izenean agertu zen haren lehendakaria, Ángel Garde Lecumberri jauna.

Nafarroako Biologoien Elkargo Ofizialaren izenean agertu ziren Juan Franco Goyena jauna eta Alicia Soria Tosantos andrea.

Nafarroako Gobernuak Elikagaien Segurtasunaren Atalaren (NOPLOI) izenean agertu ziren Elikagaien Segurtasunaren eta Ingurumen Osasunaren Zerbitzuko burua, Sagrario Laborda Santesteban andrea, eta Elikagaien Segurtasunaren Ataleko burua, Raúl Gonzáles Alvarado jauna.

Nafarroako Ostalaritza eta Turismoko Enpresaburuen Elkartearen izenean agertu ziren Juan Campos jauna, zuzendaritza batzordeko kidea, eta Nacho Calvo jauna, idazkari nagusia.

– Ekainaren 11n: Nafarroako Ingurumen Zaintzaren izenean agertu ziren Gloria Giralda, Ingurumen Kudeaketaren Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuko zuzendaria, eta Ignacio Borda Pascal, Ingurumena Zaintzeko Ataleko burua.

Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (NIK) enpresa publikoko Ehiza eta Arrantza Arloaren izenean agertu zen zuzendari kudeatzailea, Luis Sanz Azcárate jauna.

– Ekainaren 25ean: Granja Cinagética de Aves SLren izenean agertu zen Juan Campos jauna.

ES31155000001 eper ustiatzearen izenean agertu zen Jesús Azparren Etxeberria jauna.

Larrasal haztegiaren izenean agertu zen Leocadio Galán jauna.

Agerraldia egin dutenek dokumentazioa ekarri dute, eta ponentziak behar bezala aztertu du dokumentazio hori.

4. Zenbait bilera egin ondoren, ponentziak honako txosten hau aho batez onetsi du, 2022ko ekainaren 17an eginiko bileran. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ponentziak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea bere lana amaitu zuela, Mahaiak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeari dei egin ziezaion txosten honetan onetsirik proposamenak eztabaiatu eta bozkatzeko.

2.- Araudia.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 50.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroak eskumen osoa du ehizaren, ibai eta aintziretako arrantzaren eta akuikulturaren gainean.

Eskumen hori baliatuz, Nafarroak hainbat arau onetsi ditu bere lurraldean ehiza eta arrantza jardura arautzeko. Gaur egun indarrean dago Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea (aldaketak egin zaizkio 12/2011, 23/2013 eta 4/2014 foru legeen bidez).

Arau horren osagarri da ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatzeko eta betearazteko Erregelamendua, partez aldatua otsailaren 1eko 7/2012 Foru Dekretuaren bidez.

Beste arau hauek ere osatzen dute Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko araudia: 143/1993 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Arrantzako Aholku Batzordea sortzen duena; 144/1993 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Ehizako Aholku Batzordea sortzen duena; 157/1995 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, behin betiko onesten duena Nafarroako Salmonidoen Arrantza Antolatze Plan Zuzentzailea; 143/1996 Foru Dekretua, martxoaren 11koa, Ibai Karramarro Autoktonoa Leheneratzeko Plana onesten duena; 207E/2021 Foru Agindua, abuztuaren 3koa, zeinaren bidez onesten baita pertsonen osasunari edo segurtasunari, nekazaritzari, basogintzari, abeltzaintzari edo basa faunari kalte handiak egiten dizkieten ehiza-espezieak kontrolatzeko metodoak arautzen dituen xedapena; 351/2010 Foru Agindua, uztailaren 20koa, basa faunako zenbait espezie izurri deklaratu eta haiek harrapatu eta hiltzeko neurriak

arautzen dituena; 94/2012 Foru Agindua, irailaren 4koa, Nafarroako ehizazain titulua nola eskuratu arautzen duena; 179/2014 Foru Agindua, ekainaren 17koa, ezartzen duena zer sistemaren bidez izendatuko diren Ehizako Aholku Batzordean tokiko ehiztari elkarteetako ordezkariak, hain zuzen ere ehiza barrutiak zuzeneko esleipen bidez hartu dituzten elkarteetakoak; eta debekuei buruzko foru aginduak, eta Nafarroan arrantza arautuko duen berriarazko araudia.

Estatuak ere hainbat eskumen atxikitzen ditu, eta horien artean nabarmentzen da abenduaren 13ko 42/2007 Legea, natura ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa. Lege hori Europar Batasunak natura ondarearen eta biodibertsitatearen alorrean ezarritako arau-esparruan kokatzen da. Batez ere aipatzekoak dira Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalen eta fauna eta flora basatien kontserbazioari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentaraua, hegazti basatien kontserbazioari buruzkoa.

3.- Ehizaren eta arrantzaren egungo egoeraren azterketa soziala.

Ponentziaren bilkuretan egiaztatu da ehizari eta arrantzari buruzko araudia aldatu eta XXI. mendeko errealitatera egokitu beharra dagoela. Gizartea, biztanleriaren banaketa, fauna, paisaia, lurraldearen erabilera eta beste inguruabar asko aldatu dira azken urteetan, eta horrek eragina izan du faunan eta ehiza jardueran.

Laborantza lurra bertan behera uzteak, lurren erabilera aldatzeak, paisaia aldatzeak, azpiegiturak eraikitzeak eta horrelako jarduerak azken urteotan eragin handia izan dute faunan, eta populazioen aldaketak eragin dituzte. Hala, espezie batzuk asko ugaltu dira, eta beste batzuk, aldiz, galtzeko arriskuan egotera iritu dira.

Eragin horren adibide argia da azken urteotan untxiak eta basurdeak izandako hazkunde garrantzitsua. UAGN nekazari sindikatuak emandako datuen arabera, Nafarroako Erriberan, bereziki Ebro ibaiaren eskuinaldean, UIK (ugaritasun indize kilometrikoa) 4tik gorakoa da, eta halako ugarietasunak kalte larriak sortzen dizkio nekazaritzari.

Basurdearen kasuan ere hazkunde esponenzial oso kezagarria egiaztatu da. Sindikatu berak emandako datuen arabera, harrapatutako basurdeen kopurua 1990. urtean 2.363 izatetik 2000. urtean 4.914 izatera igaro zen, eta 10.000 basurde baino gehiago harrapatu ziren 2020. urtean.

Espezieen populazio handiegi horiek inpaktu gogorra dute lurraldean, nekazaritzako kalte handiak, trafiko istripuak eta ingurumeneko desorekak eragiten baitituzte.

Bien bitartean gainbehera datoz etengabe beste espezie autoktono batzuk, hala nola eperra, amuarraina edo izokina. Askotariko faktoreen mehatxupean daude: klima aldaketa, ur emariak, azpiegiturak eta abar.

Aldaketa horiek ehizaren erabilera aldaketa eragin dute; nahiz eta kirol edo aisiako jardueraren ohiko izaerari eutsi, zenbaitetan ehiza jarduera kudeaketa-tresna bilakatu da populazioak kontrolatzeko, laboreetan eragindako kalteak kontrolatzeko, etab.

Ehiza, jarduera huts gisa, gero eta gehiago jartzen da ezbaian, eta ehiztarien kopurua gero eta txikiagoa da. Gazte gutxi hasten dira ehizan, eta ondorioz oso sektore zahartua da ehiztariena. Horrekin batera, ehiza, jarduera arriskutsua den aldetik, berrikusi egin behar litzateke, ehiztariaren segurtasuna eta gainerako pertsona bermatzeko prestakuntza egokirako neurriak ezarriz.

Nafarroan, dagoeneko, ibai inguruak eta oro har landa ingurunea dinamizatzen kirol edo aisia jarduera oso baliagarria bilakatu da arrantza. Horregatik, arrantzak protagonismo berezia hartu behar du, iraganekoa baino handiagoa, gako faktore gisa, gure landa ingurunean udalerrietan lehiakortasuna eta jarduera ekonomikoa bultzatu eta biziberritzeko, haien baliabideen aprobetxamenduak lana eta aberastasuna sortzeko duen balioa nabarmenduz. Betiere baliabideen garapenak jasangarria eta orekatua izan behar du ekonomiaren, ingurumenaren, kulturaren eta gizartearen aldetik.

Azken hamarkadetan, Nafarroako ibai eta urtegietan kirol edo aisialdiko arrantzan nahiz arrantza profesionalean aritzeak garrantzi berezia hartu du, eta hori zenbait inguruabarren ondorio zuzena izan da: hil gabeko arrantzaren ezarpen gero eta zabalagoa, akuikultura bideratu izana birpopulatzeko eta askatzeko kalitatezko aleen ekoizpena, edota arrantzaleen eta lehiaketako epaileen prestakuntzarako eskolak sortu izana, batez ere Nafarroako Arrantza Federazioaren eskutik. Horren guztiaren eraginez, arrantza hazkunde moderatua eta jasangarria izaten ari da eta pertsona kopuru nabarmena biltzen ari zaio. Bakarka nahiz arrantzako kirol klubak, arrantzale elkarten eta gainerako elkarten barnean, pertsona horiek beren aisialdiaren zati bat ematen dute jarduera horretan, ibai eta aintzira sistemetakoa ur ertzetan.

Arrantzan aritzeak berekin dakar naturarekiko harreman berezia izatea. Naturak ingurune hezeetan biltzen ditu fauna eta flora basatietako espezie kopururik handiena, eta, horregatik, ur inguruneak benetako eskolak dira herritarrei natura ezagutzen eta errespetatzen irakasteko, eta, herritarren lankidetzaren solidarioa tarteko, ingurumena kontserbatzeko bitarteko ahaltuak dira, ezertan ukatu gabe administrazio publikoek alor horretan duten erantzukizuna.

4.- Araugintzarako eta etorkizunerako proposamenak.

Foru lege berriak printzipio orokor batzuk jaso behar lituzke, elkarte, entitate eta eragileek azalduko azterlan eta analisisietatik ondorioztatuko liratekeenak, laburbilduta; besteak beste, honako hauek:

1. Ehizaren araudia eta arrantzarena bereiztea. Azken urteotan argi ikusi da egungo foru legea ehizarekin edo arrantzarekin zerikusia duten arrazoiengatik aldatzeko beharrek erritmo desberdinak dituztela.

Gainera, hain dira desberdinak haien ondorioak eta erregulazio administratiboa eta soziala non proposatu behar baitugu bi jarduerak bereiztea araudiaren ikuspuntutik eta foru lege banaren bitartez arautzea.

2. Tradiziozko jarduerak. Eboluzionatu egin behar dute, ehiza eta arrantza baliabideen kudeaketa modernoa eta irizpide zientifikoetan oinarritua helburu. Modu ordenatu eta jasangarrian gauzatu-tako ehiza eta arrantza jarduerak tradiziozkoak dira Nafarroan, eta garrantzi handia dute gizartean, ekonomian nahiz kirolean.

Haiek egoki arautzeak bidea eman behar du gure gizarteak guztiz barneratutako ohiko jarduera horiek bateragarriak izan daitezen aisiako jarduerekin. Gainera, landa eremuen garapen ekonomiko eta sozialerako eta ingurumen-erregulazio egokirako aukera emanen dute.

Populazioak kontrolatzeko tresnatzat ere hartu behar dira.

3. Ingurumen-jasangarritasuna. Ehiza eta arrantza jarduerak lagundu behar du habitaten ingurumen-jasangarritasuna lortzen eta ehiza espezieak, arrantza espezieak zein intereseko gainerako animalia espezieak kontserbatzen.

Ehiza eta arrantza, beraz, espezieen kontrolerako tresnak ere badira, oreka ekologikoa lortzen laguntzen dutenak, gehiegizko ugaltze kaltegarriak erregulatuz eta intereseko gainerako landare

eta animalia espezieen kontserbazioan eta hobekuntzan lagunduz.

4. Baliabide sozioekonomikoa. Ponentzia honen iritziz, baliabide ekonomiko gisa ere arautu behar dira ehiza eta arrantza. Laguntzen ahal dute eta lagundu behar dute aberastasuna sortzen eta landa eremuak garatzen eta, horrenbestez, despopulazioari aurre egiten eta biztanleen bizi baldintzak hobetzen.

Ponentzia honen iritziz, beraz, ehiza eta arrantza ondasun publikoak dira eta estu lotuta daude gizartearen eta lurraldearen kohesioarekin. Gainera, ehizak askotariko baliabide ekonomikoak sortzen ditu, tartean ostalaritzarekin, sukaldaritzarekin eta ehizazain, teknikari eta albaitariekin zerikusia dutenak, eta, azken finean, landa ingurune bizi biztanleria finkatzen laguntzen du.

Nafarroan ehizak erreferente izaten jarraitu behar du populazio basati autoktonoak indartu eta babesteagatik, bere kudeaketa horietan oinarritzeagatik eta gizarte- eta kirol-kudeaketa nabarmeneko ehiza sozialaren ereduaren aldeko apustua egiteagatik.

Ehiza sozialeko eredu horretan, gizarteek (beren lurraldeari estu lotuak) ingurumenaren aldeko eginkizun ukalezina betetzen dute, habitatean hobekuntzak eginez, edo intereseko espezieak –hala nola ehizakoak edo katalogatuak– harrapatzen dituzten espezie predatzaileak kontrolatuz.

Ehizaren araudia barrutien jabe nagusi diren toki entitateentzako aprobetxamendu ekonomikora bideratu behar da. Hala, udalerrri osoari onura dakarkion baliabidea izanen da ehiza, bai ustiapenaren beraren bitartez, bai jardueraren lagungarri izan behar duten baliabideen sorreraren bitartez.

Ildo horretan, ehiza eta arrantza jasangarriak ziurtatzeko organoak sortzea lagungarria izan daiteke negozio-zokoak sortzeko edo turismoarekin, sukaldaritzarekin eta landa jarduerekin zerikusia duten aukera ekonomiko berriak agertzeko.

5. Bizikidetzaren. Ehiza eta arrantza landa eremuetako lurraldearen beste erabilera batzuekin (nekazaritza, abeltzaintza, kirola eta aisia) bateragarri izateko moduan garatu behar dira. Hortaz, gizarte osoak parte hartu behar du haien arauetan, eta eragindako alderdi guztiak hartu behar dira kontuan. Ehiza jardueraren eta abeltzaintza eta nekazaritza jardueraren arteko bateragarritasunerako bideak aurkitzea araudi berriaren erronketako bat da.

Garrantzitsua da erantzukizunak eta betebeharrak zehaztea, ehiza espezieek barrutiaren inguru-

ko laboreetan eta bestelako ondasunetan eragindako kalteak kontrolatu eta kudeatzeko, kalte gutxiago izan dadin edo ordaina eman dadin.

Halaber garrantzitsua da beste animalia batzuei edo gizakiei kutsatzen ahal zaizkien gaixotasunak kontrolatu eta kudeatzea.

Azken batean, ehiza jarduerari buruzko arauak ingurumen eta ekonomi jasangarritasuna bermatu behar du, kudeaketa orekatua bilatuz: baliabidea ustiatzen duena, espezieen iraupena eta habitaten hobekuntza bermatzen duena eta, horrekin batera, ehiza animaliek nekazaritzan sortzen dituzten ondorioak kudeatzen dituena eta ehiza lurraldeko nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin batera garrria izatea bermatzen duena.

6. Ehiza eta arrantza jarduera eta barrutien ustiapena planifikatzea. Jarduera horren erregulazioak, oro har, ingurumenaren plangintzaren eta garapen jasangarriaren parte izan behar du.

Ehiza antolatzeko eta ehiza barrutiak ustiatzeko planak floraren eta faunaren ingurumenkudeaketarako estrategiekin koordinatu eta lerrokatu behar dira.

Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaigu ehiza jarduerak eragindako alderdi guztiek parte hartzea plangintza horretan, parte hartzeko organoen bitartez.

Uste dugu ehiza- eta ustiapen-plan horien definizioak laguntzen ahal duela ehiza jasangarriagoa izan dadin, inguruneko gainerako jarduerekin bateragarria eta, bereziki, debekualdiei buruzko araudiekin sinkronizatua.

Horren harira, ingurunearen errespetua plan horietan arautu eta zehaztu behar da eta barrutia bala-zorroz, kartutxo eta jardueraren hondarrez garbitzeko arau egokiak jarri bai postu finkoetarako, bai barruti osorako.

Aipatu planetan ehiza jardueraren salbuespenak arautu eta zehaztu behar dira, hala nola abantaila-egun deituetan (elurtea, lehorrea, hotz bolada...), edo ibilgailu batetik edo argiekin ehizatzea. Betiere salbuespen horiek populazioak kontrolatzeko helburu bakarrekin eta gehiegikeriarik gabe erabili behar dira, eta denboraren eta formen aldetik behar adinako arintasuna eman behar zaie.

Ehiza barrutiak kudeatzeko araudia jarduera horren errealitate berrietara egokitu behar da, erantzukizunak hobeki zehaztuz, hirugarrenei kalteak eragiten zaizkien kasuetarako, bereziki.

Ehizazain eta landazainen figura ingurumenzain bilakatu eta jasangarritasun helburuari dago-

kionez dituzten eskumenak handitzea bereziki garrantzitsua izan daiteke ehiza barrutiak kudeatzeko eta ehizan egoki aritzeko, ehiza baliabideak ustiatu eta antolatzeko planekin bat etorritz.

7. Segurtasuna. Arauak ahalik ongien bermatu behar du modu ordenatu eta kontrolatuan egiten direla bai ehiza bai arrantza, arrisku eta ondorio kaltegarrietatik babestuz ehiztari eta arrantzaleak berak, ingurunea eta, batez ere, pertsonen osasuna.

Horren haritik, gure ustez, armen erabilera seguruari buruzko etengabeko prestakuntzak, duen garrantziagatik, segurtasun neurriei buruzko kapitulu bat merezi du, espezifikoagoa, eta arauhausteez eta horien ondorioez ere bai.

Ponentzia honek gomendatzen du alkoholemia kontrolak egiteko aukera arautu dadila agintaritzak beharrezkotzat jotzen duenean, bereziki su-armak erabiltzen diren ehiza motetan.

Gomendatzen da arau bidez erregulatzea adingabeek parte hartzeko baldintzak, batez ere ehiza jardueretan; arma motak arautzea, eta adingabeak lagundu behar dion guraso edo tutoreak bete beharreko arauak ezartzea. Ikusgaitasun handiko jantzien nahitaezko erabilera ere arautu behar da, ehiztarien ikusgaitasun egokia bermatzeko.

Berariazko atal bat merezi du uxaldi eta mendi-ehizaldien araudiak, haien arriskuagatik eta ingurunean duten eraginagatik. Gutxienez ere, uxaldiko parte-hartzaile eta laguntzaileen zerrenda eskatu behar da, uxaldiko koordinatzaile arduradunaren identifikazioarekin, eta pertsona bakoitzak uxaldian izanen dituen eginkizunak zehaztuta. Horrez gain, halako ehizaldiak arauz erregulatu behar dira eta homologatu, ikusgaitasun eta ulergarritasun egokiak bermatzeko ibilgailuak ibiltzen diren zonetan, BTT eta GR ibilbideetan nahiz metro batetik gorako zabalera duten bideetan.

Gure iritziz, berariazko beste kapitulu bat merezi du kamera, drone eta gisako teknologia berrien erabilerak.

Lehentasuna izanen da, halaber, animalien ongizatea bermatzea eta bai fauna basatiaren bai ehizarako edo arrantzarako erabiltzen diren animalien kontrako tratu txar mota guztien debekua arautzea.

8. Arrantza baliabideen kudeaketa.

Arrantzaren eta arrantza baliabideen atalean, hauek dira ponentzia honen proposamenak:

Baliabideen aprobetxamendua eta sustapen jasangarria indartu behar dira, haien plangintza eta erabilera ordenatuen bitartez.

Halaber, uste dugu uretako faunako populazio autoktonoen dibertsitate genetikoa babestu behar dela, eta uretako ekosistemak eta arrantza mantendu, eta, bereziki, hil gabeko arrantza bezalako ereduak garatu.

Garrantzitsua da araudi berriak arrantzan airtzeko aukera bermatzea herritar guztiei, baldintza berdinekin.

Espezie inbaditzaileak ezabatu ahal izateko neurriak eta bitartekoak ezarri behar dira.

Arrantzarekin eta uretako ekosistemen kontserbazioarekin lotutako gaien ikerketa, prestakuntza eta zabalkundea sustatzea izanen da arrantza baliabideei buruzko etorkizuneko araudian garatu beharreko helburuetako bat.

Administrazio eskudunen jarduna koordinatu beharko da ur inguruneari dagokion guztian, etorkizuneko foru legearen helburuak lor daitezen.

Foru araudi berriak lagundu beharko du arrantza natura inguruneko aisia eta kirol jarduera izan dadin eta Nafarroako landa eremuen garapenerako ekarpena egin dezan.

Entitate eta elkarte guztien eta oro har kolektibo interesdunen parte-hartzea indartu eta sustatu beharko da.

Azkenik, uste dugu beharrezkoa dela ahalik gehien aurrera egitea, ez bermerik ez segurtasun juridiko edo administratiborik galdu gabe, izapide administratiboak erraztu eta koordinatze aldera.

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

2022ko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa onetsi zuen, honako proposamen hauek gehituta:

«Lehena.

25. orrialdea.

Ekintza bat gehitzen zaio 0.0.2.3 helburu operatiboari. Honela idatzita gelditzen da:

“2.3.4. Berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaroak departamentu guztietako funtzionarioentzat. Parte hartzeko pizgarriak ematea funtzionarioei”.

Bigarrena.

31. orrialdea.

Aldatu egiten da 3.8.1 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“Berdintasun plan sektorialak egitea, Nafarroako Gobernuko departamentuen politikak hala eskatzen duenean.

Bestalde, departamentuetako berdintasun unitateek departamentuko plana eginen dute, plan estrategiko honek ezarritako berdintasun helburuak lortzeko departamentuetan garatu beharreko ekintza eta neurriei buruzkoa”.

Hirugarrena.

31. orrialdea.

Ekintza bat gehitzen zaio 0.0.3.8 helburu operatiboari. Honela idatzita gelditzen da:

“3.8.4. Nahitaez bete beharreko irizpideak ezartzea Nafarroako Gobernuko kontseiluetan eta zuzendaritza postuetan ordezkariak orekatuaren printzipioa bermatzeko. Ez betetzea justifi-

fikatu egin beharko da dena delako departamentuko berdintasun unitatearen txosten baten bidez.

Ordezkaritza orekatuaren printzipioa bete beharretik salbuetsiko dira emakumeek jasaten duten eta jasan duten diskriminazio historikoa bistaratzen eta gainditzen laguntzea helburu duten gunen instituzionalak”.

Laugarrena.

33. orrialdea.

Aldatu egiten da 0.0.4.4 helburu operatiboa, eta honela idatzita gelditzen da:

“0.0.4.4. Emakumeek beren askotarikotasunean politika publikoak ezagutu eta horietan parte hartu eta eragin dezaten sustatzea, Gobernu Irekiaren bidez eta gardentasunerako eta parte-hartze demokratikorako beste tresna batzuen bidez”.

Bosgarrena.

33. orrialdea.

Helburu operatibo bat gehitzea. Hona:

“0.0.4.5. Foru legearen eta berdintasunari buruzko araudi osoaren garapenaren gaineko kontrola.

4.5.1. Erregelamendu bat egitea plana abian jarri ondoko lehen seihilekoan, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezartzen duen zehapen araubidea gauzatu ahal izateko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta prozedurak ezartzeko.

4.5.3. Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (NABI) zuzendari kudeatzaileak eta kontseilariak arau-hausteei dagozkien zehapenak ezarri ahal izateko behar diren tresnak sortu eta martxan jarritzea”.

Seigarrena.

38. orrialdea.

Aldatu egiten da 5.1.4 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“5.1.4. Hezkidetza Planaren eta Skolae programaren esparruan hezkuntza ekimenak sustatzea haur eta gazteek ulertu eta barneratu dezaten etxeko zainketak eta etxeko lana positiboak eta beharrezkoak direla, eta banakoen eta taldearen erantzukizun gisa har ditzaten”.

Zazpigarrena.

39. orrialdea.

Aldatu egiten da 5.3.2 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“5.3.2. Gizonezko langile publikoak erantzukizun partekatuko kontziliazio neurrietara bildu daitezten sustatzea. Berariazko neurri sorta bat prestatzea, gizonek beren gain har ditzaten zainketak”.

Zortzigarrena.

39. orrialdea.

Ekintza bat gehitzen zaio 0.0.5.3 helburu operatiboari. Honela idatzita gelditzen da:

“5.3.6. Azterketa bat eginen da zainketen erantzukizun partekatua sustatzeko zerbitzu publikoen (haur eskola, eguneko zentro eta abarrekoen) existentziari eta lurralde banaketari buruz, eta, azterketa hori oinarritzat hartuta, plangintza-proposamen bat eginen da, zerbitzuen banaketa orekatua ezartzeko, beharrezkoa balitz”.

Bederatzigarrena.

40. orrialdea.

Aldatu egiten da 5.4.4 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“5.4.4. Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzea zainketen zorro publikoa handitzeko, sektore horretan enplegu publikoa eta kalitatezkoa sustatzeko, zaintzarako gune komunitarioak sortzeko eta zainketei eta horien hornidurari lotutako zerga, lan eta gizarte politikak hobetzeko. Toki entitateekin eta Espainiako Gobernuarekin elkarlan proaktiboan aritzea konpromiso hori betetzeko”.

Hamargarrena.

42. orrialdea.

Aldatu egiten da 6.1.5 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“6.1.5. COVID-19ak, Ukrainako gerraren ondorioek eta premiazko ondasun eta produktuen prezioen gorakadak sortu duten egoerak Nafarroan pobrezia feminizazioari nola eragin dion ebaluatzea”.

Hamaikagarrena.

42. orrialdea.

Aldatu egiten da 6.2.1 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“6.2.1. Nafarroan soldaten eta pentsioen arrakala berariazko neurrien bitartez murrizteko estrategia instituzionala prestatu eta martxan jartzea”.

Hamabigarrena.

46. orrialdea.

Ekintza bat gehitzen zaio 0.0.7.1 helburu operatiboari. Honela idatzita gelditzen da:

“7.1.6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa bete dadin arduratuko da, Nafarroako enpresek ordainsari-erregistroak sexuaren arabera xehakaturata argitaratzeari dagokionez. Betetze horren balorazioa eginen du aldian behin”.

Hamahirugarrena.

58. orrialdea.

Aldatu egiten da 9.3.1 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“9.3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkortasunez sartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren hezkuntza plan eta proiektuetan, Hezkidetza Planak eta Skolae programak ezarritako esparru orokorrek bat etorri”.

Hamalauugarrena.

59. orrialdea.

Aldatu egiten da 9.4.1 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“9.4.1. Arlo guztietako erakundeek (lan arloa, hezkuntza ez-formala, kirola, aisia...) eta herritarrek indarkeria matxistari bai eremu publikoan bai pribatuan (enpresetan zein gizarteetan) aurrea hartzeko betetzen duten rol proaktibo eta arduratsua indartzea”.

Hamabosgarrena.

63. orrialdea.

Aldatu egiten da 10.1.3 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“10.1.3. Polizia, epai, osasun, gizarte eta lan eremuetan indarkeria goiz detektatzeko protokoloak prestatu, jarraipena egin eta hobetzea, arreta berezia jarriz indarkeria psikologikoaren eta indarkeria ekonomikoaren detekzioan”.

Hamaseigarrena.

63. orrialdea.

Aldatu egiten da 10.1.4 ekintza, eta honela idatzita gelditzen da:

“10.1.4. Osasun, gizarte, hezkuntza, polizia eta epai eremuetako baliabideetako langileei informazioa eta prestakuntza ematea beren zerbitzuetan emakumeen kontrako indarkeria kasuak antzemateko eta halakoen aurrean jarduteko dauden prozedura, tresna eta jarraibideez, egoera susmagarri buruzkoak barnean harturik”.

Hamazazpigarrena.

69. orrialdea.

Komunikabideei buruzko berariazko apartatu bat gehitzea. Hona testua:

“• Komunikabideak: NABIk “Genero-ikuspegia duen komunikazioa berdintasunezko gizarte batentzat” programaren bi edizio antolatu ditu dagoeneko, Nafarroako Emakumezko Kazetarien Elkartearekin lankidetzan. Helburua da profesionalei genero-ikuspegia duten tresnak ematea beren lanbidean jarduteko. 2022koan 70 profesionalek parte hartu dute”.

Hemezortzigarrena.

80. orrialdea.

Paragrafo bat gehitzea. Hona:

“Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezartzen duenez, Lehendakaritza Departamentuko titularrari dagokio zehatzeko ahala baliatzea foru lege horrek esleitzen dion moduan, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzaileari dagokio zehapen araubideko administrazio-espedienteak abiarazteko eskumena”.

Hemeretzigarrena.

81. orrialdea.

Eginkizun bat gehitzen da, honako testu hau duena:

“• Foru legea kasuko eremu funtzionalean eraginkortasunez betetzen dela ziurtatzea”.

Hogeigarrena.

81. orrialdea.

Aldatu egiten da “A. Berdintasunerako Departamentuarterko Batzordea” atalaren bigarren paragrafoa, honako hau gehituz:

“Berdintasunerako Departamentuarterko Batzordea urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez”.

Hogeita batgarrena.

Bermatuko da 0-3 urteko ziklo osoa doakoa izatea».

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

